

## HARTZA EHIZATZERA GOAZ



## LIBURUAREN FITXA

ROSEN, Michael; OXENBURY, Helen *Hartza ehizatzena goaz*. Pamiela-Kalandraka, 2012

### Aurkezpena

Ipuin kateatu bat da honako hau; pasarte bakoitzean familia ausarta batek errepikatzen du hartza ehizatzena doazela, beldurrik gabe. Bidea, ordea, oztopoz betea dago: belar altua, zeharkatu behar den ibai bat, lokatzez beteriko eremu luze bat... Familiak aurrera egiten du, bere leloa errepikatuz eta oztopo bakoitzari onomatopeia bat eskainiz... Baina hartzarekin topo egiten dutenean, a zer sustoa! Atzera egin behar izan dute oztopoz oztopo beren etxera iritsi arte...

Ilustrazioei esker, indar handia hartzen du kontakizun klasiko honek: kontakizuna zuri beltzean dator, arkatzez; baina irristaka dabilzanean, bustitzen ari direnean, edota uretan sartu behar dutenean, paisaiak bere dimentsio erreala hartzen du akuarela ederren bitartez.

### Kontaketa

- Marrazkiak aztertu ondoren, gertatzen dena kontatu arazi.
- Testuan errepikatzen diren puskak behin eta berriz esan, denek ikasi arte.
- Onomatopeiak ikasi eta errepikatu pasarte bakoitzean

### Proposamenak

- Testuaren errepikapen erritmikoa oso aproposa da irakurketa imintzioak egiteko.
- Testua buruz ikasteko aproposa da; aldi berean, antzezpen bat prestatzeko oso egokia izan daiteke.
- Onomatopeia jolasak ere egin daitezke

### Proposamenak zehazten

- Antzezpen bat prestatu beste gela batean aurkezteko
- Testua ikasi ondoren irakurri liburua erabilia beste gela batean